

Azken hamabi urteetan, Arrietako plaza inguruko nekazari, ekoizle eta artisauena ere bada. Hilean behin izaten da azoka, hileko lehen igandearekin, hain zuzen ere, eta azoka hutsetik harago doan ekimena da, haren oinarrian zenbait balio finkatu baitituzte antolatzaileek, ekoizpen ereduari eta herriari begira. Esan daiteke etxeko elikagai eta lan onenak biltzen dituztela saltoki horiek, beste azoka askotan bezala, baina Arrietakoak hainbat balioren transmisiorako bide ere izaten ari dira, herriaren zaintzari –zentzurik zabalean– begiratzen dion egiteko era baten isla eta erakusleihu bilakatuz.

Lekukoartu elkarteak antolatzen du hitzordua, nekazaritzan eta artisautzan lan egiten duten produktoreak eta sektorean lan egiten ez duten lagunak ere biltzen dituen taldeak.

Ekimenaren sustrai sako-nenak ekarri ditu gogora Jon Barainka “Saskel” elkarteko kideak. 2000. urtera joan behar da oinarriak ezagutze-ko, «lehenengo hazia» mendearekin jaio baitzen. Nekazari eta boluntario batzuek zerbait egiteko beharra ikusten zuten.

Hasierako urte haietan kontsumo talde bat jaio zen, «hazi» horren lehen fruitua izango zena. Lau urtetan zehar egon zen martxan. Esperientzia hori bukatu eta geldialdi bat etorri zen ondoren, baina jarraitzen zuten taldean beste zerbaiti forma eman nahian. Gaubean, Araban, igandetan egiten zituzten azoken eredua zuten mahai gainean. Azoka ospatzeko eguna, edo beste



ARRIETAKO AZOKAK

Eredu agroekologikoa jarraituz, lurrak duen onenari ahotsa eman dioten azokak

📁 **KONTSUMOA** / Nerea GOTI

Azken urteetan erreferentziazko hitzorduak bilakatu dira Arrietan egiten dituzten azokak. Eredu agroekologikoan ekoiztiko jakiak eta artisauen lanak biltzen dituen esperientziak hainbat mezu eta ahotsi egin die toki, herriko plaza egiteko era baten isla bihurtuz eta gertuko eta sa-soiko produktuak erdigunean jarritz.

era batera esanda, erosketetarako aproposena izan zitekeen eguna finkatzea izan zen eztabaidagaietako bat... Eta horrela heldu zen lehen azoka, igandebatean, eta abuztuan, berezopar garai bete-betean heldu zen lehen esperientzia bat. Herriararekin egin zuten lehen kontaktu hark sekulako erantzuna izan zuen.

«Helburua zen, alde batetik, bertako nekazari txikiak sare-tzea, elkar ezagutzea eta herrian bertan ere duen agroekologikoari presentzia ematea», azaldu du Haizea Bengoetxea Andikotxea Lekukoartuko beste kide batek. Filosofia horri jarraituz, azoka hainbat jarduerarekin jantzita izan da betidanik, eragile ezberdinak

gonbidatuz eta hausnarketa, eztabaida eta balioen transmisioari espazio berezi bat eman- ez. «Guk ez genuen planteatzen salmenta zuzeneko espazio soil gisa, baizik eta aldarrikapen eta hausnarketarako espazio bat bezala», dio “Saskel”-ek, agroekologiak hartzen duen filosofia aipatuz. Nekazaritza ekologiko eta iraunkorraren inguruko proiektu asko dago, baina arlo sozioekonomiko, politiko eta kulturalarekin lotutako bidezko harremanak bultzatzen dituen egiteko era hori ere erakutsi nahi zuten, bere adierazpen guztiekin.

Filosofia horrek hainbat isla izan ditu urteetan zehar hileroko azoketan. Guztira, hamaika hitzordu dira urtean, geldiduna egiten baitute urtar-rilekoan. Kontatu dutenez, inguruan aktibo dauden elkarte, eragile eta espazioekin lan egin dute beti. «Azoka antolatatu denean, beti eman zaio espazio bat aldarriari, mo-

Arrietan, inguruko ekoizleek azokak egiten dituzte hilean behin.
Marisol RAMIREZ | FOKU

mentuan behar zuten elkar-teei, mugimenduei...», aipatu du Barainkak, eta ekimenak izan duen izaera didaktikoa jarri du mahai gainean.

«Adibidez, sagar zukua egiten da urtero, gazta freskoa egiteko tailerra egin da, eskilatzea ere plazan egiten da, tomate dastatzea, tomate barietate ezberdinak ezagutzeko...», aletu du elkarteko kide beterranoak, eta Bengoetxeak gaineratu du azokak antolatzean beti saiatu izan direla sasoiko produktuak eta lanak prestatzen, garaiko lanak eta elikagaiak plazara eramanez, eta baserritarren munduaren atzean dauden lan ezberdinak ezagutzera emanez.

Coca-colarik ez txosnan

Nekazaritza eta herriaren arteko harremana ardatz duen agroekologia bezalako eredu batean, Saskelek erantsi du herriarren ondoan lan egitea edota haien parte hartzea bultzatzea bilatu izan duten zerbait izan dela hasieratik. Horren adibide gisa, lehen azoka bera aipatzen du. «Guretzat beti izan da inportantea herriko jendearekin kontatzea. Lehen azokan, baserrietan dauden eta jada erabiltzen ez diren tresna zaharrak bildu eta ikusgai jarri genituen. Herriko jende gehiena etorri zen azokara, noski, bere etxeko edo ondoko etxekoak ziren erreminta horiek ikustera. Frontoia beterik egon zen. Horrek beste begirada bat eman digu», dio Barainkak.

Azoka ezaugarritzen duen beste adibide bat mahai gainean jarri du. Txosna izaten du azokak, baina tokiko edariak baino ez dituzte saltzen: txakolina, sagardoa, ardoa.... «baina Coca-Cola, adibidez, ez dugu hamabi urtetan

inoiz saldu. Gure ideia izan da beti bertako produktuak plazaratzea, bai jarduerak egiteko orduan bai pintxoak egiterakoan», adierazi du Lekukoartuko kideak.

Egindako ibilbide pertsonalez hitz egin dugu Arrietako azoka horietara gerturatzeko bildu ditugun bi ekoizleekin. Zereginean beterranoa da «Saskel». Izan ere, Bizkaigane proiektuko sortzaileetako bat da. 40 urte egin ditu bertan lanean. Izaera komuneroko egitasmoan, behiak, ardiak eta txerriak gobernatzen dituzte, baina baratzeko eta esnekiak bezalako produktuak ere merkaturatzen dituzte. Komuna eta kooperatiba ereduaren arteko egitasmo hori zortzi lagun eskuetan dago orain, eta txorizo, okela, barazkiak... eramaten ditu plazara Bizkaiganneren markarekin. Jakin-min handia piztu duen proiektua izan da. «Saskel»-ek gogoratu du herri askotatik etorri dela jendea proiektua ezagutzera,

Jon Barainka «Saskel» eta Haizea Bengoetxea Andikoetxea, azokak antolatzen dituen Lekukoartu elkarteko kideak.
Marisol RAMIREZ | FOKU



Azoka nekazaritza agroekologikoaren filosofiaren adierazle bat da, tokiko eta sasoiko elikagaien salmentarako tokia, aldarrikapen espazio bat

Hainbat jarduera izaten ditu azokak, herriari bizitasuna ere ematen diotenak. Neguan, buzkantzak egiten dituzte; sagar zukua edo tomateak dastatzekoa, bakoitzaren sasoian...

baina «administrazioa ez dela etorri, lotsa ematen diola; ez dauka aurpegiarik gugana etortzeko. Badaki nortzuk garen eta zer pentsatzen dugun», gaineratu du. «Hamabi urte eta (administrazioa) ez da etorri eskua ematera, zeren lan sozial bat egiten badugu politizatu egiten dugu, eta politika, azkenean, jaten dugun ogia ere bada», erantsi du.

«Azoka neutroak nahi dituzte erakundeek, non ekoizleek mahaia eskatu eta hainbat izaipide beteta izan behar duten», jarraitu du, beste azoka ba-

tzuen atzean dagoen ereduaz. Azoka estandarrez ari diren galdetuta, «gure estandarra beste bat» dela zehaztu du Bengoetxeak. Olatxu baserrian sortutako proiektu agroekologikoko produktorearen hitzetan, azokak baditu beste arau batzuk; produktu agroekologikoen plaza da eta paper garrantzitsu bat du ekoizle gazteei begira.

«Beti sinistu izan dugu hasi berri dagoen jende horri espazio bat eman behar zaiola. Nik uste dut Lekukoartun eman diogula espazio bat instalatze bide horretan egon den jendeari, eta horrek berezitasuna ematen dio», berretsi du.

«HAUSPOA EKOIZLEENTZAT»

Bengoetxea bera Arrietako familiaren etxera itzuli zen, eta herrian abiarazi zuen marmelada eta kontserbagintzarekin lotutako proiektua. «Nire ama eta nire amaren familia Arrietakoa da. Ama izan zen baserritik hirira salto egin zuen be-



launaldikoa, eta gero nik buelta egin dut. Aitita eta amamaren baserrian instalatu ginen hasieran bikotea eta biok, eta nekazaritzan eta kontserbagintzan hasi ginen», kontatuz dio GAUR8ri. Berez, 2012an bertan hasi ziren, eta nabarmendu duenez, «Lekukoarturi esker errotu genuen proiektua».

Izan ere, garrantzi handia ematen diote egitasmoak duen sare izaerari, funtsezkotzat jotzen baitute ekoizleen ikuspegitik, batez ere lanbidean hasten diren baserritarrentzat. «Oinarritzko gauza bat da proiektu txikientzat», berretsi du, «kristoren hauspoa baita» hasieran, sor daitezkeen zailtasunen aurrean...

«Azkenean, guk eduki dugun pribilegioetako bat da lehenengo sektorean lan egitea aukeratu ahal izan dugula» dio Bengoetxeak, eta «Saskel»-ek gaineratzen du «herri txiki

batean integratzeko zubia ere izan dela Lekukoartu, herriko beste talde batzuekin batera.

Azokek ekoizle txikien produktuak merkaturatzeko orduan duten garrantziaz, aipatu dute oso zaila dela txiki batek dendetan saltzea; «Ekoizpenaren arabera zirkuitua egin behar da, eta zuzenean saltzeak jabetza ematen dizu, zuk kontrolatzen duzu, zeren beste bati saltzen badiuzu, denbora askoz edo gutxi izan, berak kontrolatzen du zure ekoizpena». «Plazetan, merkatuetan, saltzen badiuzu, aldiz, zuk kontrolatzen duzu prezioa..., eta dependentzia gutxiago duzu», dio «Saskel»-ek. Bat dator Bengoetxea, eta gaineratzen du gainbeheran daudela salmenta zuzeneko espazioak. «Alternatibak sortzen ari dira ekoizleak sare-tzen ari direlako proiektu kolektiboetan, eta Lekukoartu horretarako espazio bat izan

Ezkerreko irudian, Barainka eta Bengoetxea, frontoiaren parean, saltokiak jarri ohi dituzten tokian. Lerro hauen gainean, azokan hartutako bi irudi.
Marisol RAMIREZ | FOKU-LEKUKOARTU ELKARTEA

daiteke», esan du. Gogoeta horretan sortu da azoka batzuk folklore bilakatu izanaren ideia. «Ematen zaien balioa ez da egitarauko ekimen batena», eta ekoizleek, batez ere txikiek, atzean duten lan handia ikusaraztea behar dute, horri behar duen presentzia ematea; ez bakarrik produktuaren erakusleho izateari balioa ematea, baita proiektuaren atzean dagoen lana eta balioa nabarmentzea ere».

Arrietako esperientzian nekazaritza ezagutu baina sektorean lan egiten ez duten herritarrak ere badaude, eta sarean boluntario gisa laguntzen aritu direnak, nekazarien seme-alabak izan direnak eta lana eza gutzen dutenak. «Bakoitzak daukanetik egin du ekarpena, sormenaren ikuspuntutik, antolakuntzari dagokionean, diseinuan... norberak bere jakituriatik egin du ekarpena», ziurtatu dute.

Ardatz horietan ainguratzen joan da hazten proiektua, eskualdean erreferentziazko hitzordu bat bihurtu arte. Plentzia, Bakio, Getxo, Bermeo eta Mundaka bezalako herrietatik heltzen dira azokaren ohiko bezeroetako batzuk. «Azoka bera elkargune bat baita», diote ekoizle biek, eta eskaintzen duen horretaz, argi dute produktu sorta askotarikoez gain-barazkiak, kosmetika, esnekiak, okela, kontserbak...- artisautza eta tximinia garbitzaileria bezalako ofizio zaharrak aurki daitezkeela.

Elkartek, gainera, inguruko ekoizleak gonbidatzen ohi ditu, eta arestian esan bezala, kalean dauden aldarrikapen eta hausnarketan bilgune ere izaten da. Arrietako azokaraino heldu da, adibidez, Guggenheim Urdaibai Stop plataformaren mezua. Basogintza ere izan da Lekukoartu Elkartek landu izan duen arlo bat. Gogoratu dutenez, basoen kudeaketa publikoaren ikuspuntutik, Arrietak 60 hektarea inguru ditu Urdaibai alde-ra, pinuz eta eukalipto beteak. Hiru egunetan zehar, esposaketa, tailerra eta 100 lagunaren parte hartzea izan zuten ibilbidea egin zuten, erduen inguruko hausnarketan sakonduz. Palestinarekiko elkartasuna ere izan da azokak zabaldu duen mezu etako bat, bertako produktuak saltzen ohi zituen palestinar baten saltokiaren bidez.

Baserriko munduak eman dezakeen onena eraman daiteke plazako saltokietara, baina beste giro bat sortzen da, egiteko era bat begietara eman eta plaza herritarren ahotsez betetzen bada. Arrietako azoketan arnasten den giroa musikaren doinuez haratago doa aspaldi.